



**BARREN**

EL GOIBARKO ASTEKARIA

629. zkia.  
XV. urtea  
2007ko urriaren 5a

Oihana Etxabe, emagina

# Umeak munduratzen dituzten eskuak



■ ■ Gure erakusketa bisita ezazu! ■ ■



■ ■ Zatoz gure funda nordiko berriak ikustera. ■ ■

# LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## SUSPERTZAILEAK behar dira



### Eskatzen da:

- 18 urte beteta izatea.
- Elgoibartarra izatea.
- Hezkuntza adarretako ikaslea izatea baloratuko da.

### Proiektuaren helburua:

- 12-14 urteko Elgoibarko gazte-kuadriletan euskara bultzatzea.
- Dedikazioa: astean 5 ordukoa.

# kuadrillategi

probatu eta gozatu!

Curriculumak jasotzeko azken eguna: urriak 11.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Nerea) • E-posta: [nerea@elgoibarkoizarra.com](mailto:nerea@elgoibarkoizarra.com)



AINHOA MENDIBIL

"Shikiya!!"

Izan da gure izena hamar egunean. Guri iribarre txiki bat irteten zitzaigun horrela deitzen ziguten bakoitzean. Eta iribarrea aurpegian, egoten ginen bertakoak elkarren artean berbetan entzuten genituen bakoitzean. Eta ez pentsa, geu ere ez gara gaizki gaizki moldatu. Ahaleginak behintzat egin genituen, nahiz bertakoek segituan igarri, andaluzez berbetan hasita ere...

"¿Vozotra zereí del Norte, no?" eta nola esan ba ezetz.

Polita izan da. Ni neu maiteminduta itzuli naiz behintzat. Eta beno, bai badago jendea, esaten didana azkar maitemintzeara naizela, eta nik ere, ez diet ezetzik esaten. Baina ez du ardura. Maiteminduta utzi nau Andaluziak Amaia.

Epela da, eta goxoa. Berezko argia dauka. Txoko ezkutu mordo dauka, eza gutu nahi dituenaren eskura. Eta lasaitu egiten zaitu. Eta mimatu. Eta bere ahotsak kilimak egiten ditu belarian, eta bere usaina... Horrenbeste dira Andaluziako usainak...

Berriz ere martxan hasteko, behar genituen hamar egun zoragarriak izan dira hain justu.

Eta Amaia, han gure bidaiakideetako batek, kanpinean, egun luze baten amaieran, elkarri begira geundela bota zigun galdera botatzen dizut.

Horrela bizita, zertarako hil?

## ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTXATEGI

Ba bai,

Sibiliak ez ezik Andaluzia osoak "tiene un coló ezpeziá". Baina koloreak ikusi nahi dituenak ikusten ditu, erreparatzen duenak.

Txoko ezkutuak dira politenak, eta bai denon eskura daude, baina hauek bilatzen dituenak bakarrik aurkitzen ditu. Horregatik dira horren politak, aurkitu izanaren harrotasunak edertzen dituelako.

Zu ere ni bezala etorri zara Bilbora, "al norte" eta hemen ere bada hainbat kolore, usain eta leku zoragari, baina oso gutxi erreparatzen dietela dirudi. Epela dela esatea, gehiegixko iruditzen zait, baina goxoa, oso goxoa izan daiteke negu hotzeko iluntze bati lagun on bat eta bi azukre kokorrez gozaturiko kafesne bero bat gaine-ratzen bazaizkio.

Azken aldi askok kafea tente hartzen dute ordea, eta argi dago, maitemintzeko, maitemintzeko gogo behar da.

Nik, zoritxarrez, astoa kartolekin bezala doan gizarte honi erreparatzeko, bilatzeko eta maitemintzeko gogo gutxi ikusten diot.

Holan bizita zertarako hil?

Sarritan pentsatu dut hori, eta harro sentitzen naiz burura hau etortzen zaidanean. Askotan eskuetatik ihes egiten ari zaigula iruditzen zaigun bizitza hau gertatu eta zoriontsu garela konturatzea ez baita gutxi.

«Maiteminduta  
utzi nau  
Andaluziak,  
Amaia»

AINHOA

«Maitemintzeko,  
maitemintzeko  
gogo  
behar da»

AMAIA



EDERTASUNA ANTZEMATEKO AHALMENARI EUSTEN  
DIONA EZ DA SEKULA ZAHARRA IZANGO

Franz Kafka



## Noizko esnatuko gara?

Gezurra badirudi ere, momentu latzak datozkio gizarteari; gizartearen minak, gorrotoak, obsesioak, ezjakintasunak, beldurrak darama bere burua deuseztera.

Ez al gara konturatzen gure egunero-ko ekintzez? Galdetuko duzue: zelatan esaten duzun hori? Sukaldean gaudenean gure eskuetan dugunari atentzioa ipini beharrean gure arazo, beldur, desio eta hainbat kezka ditugu buruan bueltaka.

Sukaldean? Edo non demontre gauden? Horrela gauza guztiekin, arazo psikologikoak goruntz doaz, baina eroak ez pentsa zoroetxean daudenik, hori gezur galanta baita. Eroak boterean dauden inkontziente jendea dira, boterearen esku eta aurrerakuntzaren izenean edozein txikizio egiteko prest daude, euren poltsiko eta gezurrak betetzeko. Orduan, zein da zoro eta inkontzientea? Ez al dugu somatu arazo psikologiko asko gizarte honen hipokresiak eta inkoherentziak ez ulertzeagatik direla? Euren sensibilitateak ezin duelako jasan? Baina, beno, horrela jarrai dezagun, telebista ikusten lasai-lasai, eta bitartean naturaren alde, eskkubidearen alde eta bizitzaren alde

gaudenok kriminalizatzen eta lau zoro-  
ren kontuak direla esanaz.

Kutsadura, zarata, zentral termiko eta NUKLEARRAK, txikizioa, estresa eta hainbat gauza dauzkagu. Gero gure seme-alabentzat onena nahi dugula esango dugu. Horrexegatik eta gauza askoz gehiagogatik esna gaitezen AHTren inguruan gertatzen diren gauza bitxiak ulertzeko. Informazioaren eskubidea eta gai honi buruzko partaidetza, non daude?

Transparentzia, hori bai da PNVko gai honen arduradunek (inbitazio bidez, luntx eta guzti eman zuten) Euskaldunan egin zuten txarlan erabili zituzten hitzak: "Por el medio ambiente genuino y sostenible", denbora guztian "participacion ciudadana", "transparencia" hitzak behin eta berriro botatzen!

Ordua da, bada, hitz hauek benetan betetzeko eta herriak ulertu eta informatu ez duzen azpijoko eta ondorio guztiak jakinarazteko.

Non dago herri kontsulta?

Non dago herri partaidetza?

Oraindik ez gabilta berandu AHTrik EZ!

**AHTREN AURKAKO TALDEAREN IZENEAN**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorezkoak dira.

2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.

4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...

5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARREn ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTURAREN ERAGILEA

**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue, Zalao Arnaiz **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otano, Alain Ulaiza, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

• **Sigmako aparkalekuan erdi-erdian aparkatzen du jendeak:** Sigmako aparkaleku estalian erdi-erdian lagatzen dute askok autoa. Ilara luze bat egiten dute kotxeekin eta ondo aparkatzen dugunok, maniobra mordoa egin behar izaten ditugu autoa ateratzeko. Mila aldiz kexatu naiz udaletxean, baina ez dute kasurik egiten. Aparkatzea debekatua dagoela adierazten duen seinaleren bat jarri edo lurrean marra batzuk margotu beharko lirarteke jendeak ez aparkatzeko. Udaltzainek, beste leku batzuetan bezalaxe, Sigman ere isunak jarri beharko lituzkete, jendeak ondo aparkatzen ikasteko”.



• **Santa Ana kaletik Olasora joateko bidea denbora luzez itxita dago:** “Ubitarte Buruko etxebizitzaren obren ondorioz, Santa Ana kaletik Olasora doan bidea itxi egin zuten. Dagoeneko etxearen teilatua bukatu dute, baina bidea oraindik ez dute zabaldu. Ingurune horretan lan egiten dugunoi sekulako mesedea egiten digu bide horrek. Errepidera atera gabe, industrigunera joateko aukera eskaintzen du bideak eta oso erosoa da. Lehen bailehen irekitzeko eskatu nahi dugu. Mila esker”.



## TXALOK

• **Txalo bero bat Udalari eta Elgoibarko Izarrari guraso talde baten partez:** “Ludotekaren aurkezpen jaialdian izan ginen joan zen zapatuan gure umeekin eta oso ondo pasatu genuen. Lan bikaina egin duzue berriro ere. Gure umeak ludotekara joateko irrikitan daude eta guk ere oso pozik lagako ditugu bertan. Jarraitu horrela!”.

• **Txalo bero bat Txankakua Merkatarik Elkarteari:** “Herriar talde batek Txankakua Merkatarik Elkarteari antolatutako azoka txalotu nahi du, berriro ere, lan bikaina egin dutelako. Dendari guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu Plaza Handira ateratzeagatik, herriari sekulako bizitasuna eman zioten eta giro polita izan zen. Egin zuten ahalegina eskertu nahi diegu eta batez ere, aurrera jarraitzeko animoak eman nahi dizkiegu”.



Atal honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## URRUZUNIOREN *Luma*

### Kolpe erraza

Tabernako txoko ilunenean eserita zeuden, mahai borobilaren inguruan, garagardo bana edaten. Pedro zehaztasun oro ematen ari zitzaion adi-adi begiratzen zioten beste bie. "Herrigunetik apartatu samar zegok auzoa, hiru etxe dituk plaza antzeko baten bueltan. Txikienean bizi duk atsoa -besteie begiratu eta hauen duda aurpegieie erreparatzean ahotsaren tonua igo zuen, hitzei sinesgarritasuna gehitzeko-. Beste norbait balitz nik egingo nitek, baina ezin diat, amaren izeba duk. Hala ere, lasai; dirua non ezkutatzen dian bazekiat. Kolpe erraza izango duk. Zer iruditzen?". Hau galdetzeaz bat, edaten ari zen garagardori azken tragoa egin zion eta botila hutsari begira gelditu zen, mahaikideon mesfidantzazko begiradak sahiestu eta tratua onartzea beste aukerarik ez zutela garbi utzi nahian. Inork ez zuen ahorik zabaldu; isiltasun astunak jarraitu zien. Pedro botila hutsari begira gelditu zen erantzunaren zain. Zigarro bat piztu zuen, zupada luze bat eman zion, kea emeki bota zuen eta tabernako eguratsa astuna itogarriagoa bihurtu zen. Planaren arriskuaz jabetzen zen, baina dirua zor zioten eta horrek tratua onartzera bultzatuko zituen, beste irtenbiderik ez zuten. Hitzak eman ziezaioten denbora kontua besterik ez zen izango.

*Unai Villena*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### ANA VAZQUEZ

FRUTAS EIBAR  
FRUTA DENDAKOIA

#### • Zein ordutan hasten zara lanean?

Goizeko zazpitan sartzen gara eta zortzi terdiak arte egoten gara dena jartzen.

#### • Lan handia da hori?

Bai. Dena atondu behar da, gabean dena batzen da eta.

#### • Fruta asko jaten dugu?

Gero eta gehiago. Jendea kontzientzia hartzen ari da, batez ere gazteak.

#### • Osasunarengatik?

Batez ere, baina gaur egun gauza berriak probatzen ere hasia da jendea.

#### • Fruta exotikoak, esate baterako?

Bai, etorkinak hasi zaizkigu eskatzen. Eta hemengook probatzen hasiak gara. Yuca, banana arra, malanga eta horrelakoak ere baditugu.

#### • Noiz kontsumitzen da fruta eta barazki gehien?

Bikini operaziorako. Igartzen da. Urtarilean ere jende gehiago etortzen da, gabonen ostean.

#### • Fruta garestia dela esaten dute.

Jendeak jan nahi du, baina ordaindu ez.

#### • Sasoian sasoiko produktuak ezagutzen ditu jendeak?

Batez ere amama eta etxeakoandreak. Gazteek ez dakite.

BARREN astekarian lan egiteko

## KAZETARIA BEHAR DA

#### Eskatzen da:

- Kazetaritza lizentziatua (edo kazetaritza ikaslea).

#### Eskaintzen da:

- 2008ko uztailean arteko lan-kontratua. Luzatzeko aukera.
- Berehalan lanean hasteko aukera.

#### Informazio gehiago eta curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte - Ubitarte 4, behea

Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: [imanol@elgoibarkoizarra.com](mailto:imanol@elgoibarkoizarra.com)

Curriculumak entregatzeko azken eguna: urriak 19.

## [AKORDATZEN NAIZ]



**NIKO OSORO**

1934an jaioa

### «Hautzarua basarrixan»

**B**asarrikua naiz ni, San Pedro baillarakua. Sei urtekin hasi giñan eskolara juaten, San Pedro-ra. Natalia genduan maistría. Hiru anai-arreba giñan, mutilla eta ni biki-xak, eta ez giñan separatzen sekula.

Behin maistriak kastigau egin nindun. Berba bat ez naban ondo pronunziatzen, ezin naban, eta kastigauta egon nitzan. Nere bikixa negar baten egon zan. Beste anaixa etxera juan zan, baiña bikixa hantxe nerekin. Mordotan piper egitten genduan.

Txori habixa billa juaten giñan, eskolara juan biharrían. Maistriak gure

amari kontau zion ez giñala juaten, eta orduantxe jaso genduan bronkia.

Basarrixan lan haundixa egoten zan. Ganaua zakagun, astuak eta dana!

Esniakin bajatzen giñan kalera, bezeruengana. Bi-hiru marmitta hartu, eta astuan bajatzen giñan. Kultur etxe azpixa lehen asto-korta bat zan, eta hantxe lotzen genduan astua.

Maiatza aldian asto danak harrotzen ziran, eta estututa ibiltzen giñan gure neska koadrilla.

Auzolanetan ere ibili naiz: sagar batzen, urretan...



## [GURE BERBAK]

### Morfologia (4): NORENTZAT

Destinatibua ere deitzen jako hizkuntzalari-tza-liburuetan. Elgoibarren, -TZAT / -TZAKO atziki-bikotia erabiltzen da, era nahiko bereizgubian erabilli ere (hiztun berak bixak erabilli leikez, esaldi berian ere). Hortaz, euskera batuan egitten dan bereizketia ez da egitten Elgoibarko hizkeran:

- TZAT: [alabiantzat] erosi dot oparixa
- TZAKO: [alabiantzako oparixa] modu onian topau dot

Euskera batuan, -TZAT aditzari (erosi dot) laguntzen juaten da (adizlaguna da), eta -TZAKO, berriz, izenlaguna, izen bati laguntzen juaten da eta (kasu honetan, oparixa da izen hori). Mendebalderago, Deba baillara gehixenian (Eibarren, Ermuan, Soraluzen eta Bergaran, konparazio baterako) erabiltzen dan -DAKO (-TAKO) atzixkixa ez da erabiltzen Elgoibarren (amandako, lagunandako,...).Hona Elgoibarko hiztunetatik etaratakko adibide batzuk:

*Gero, astelen goizian kalera jun nitzan ganauantzat pentsua ekartzera.*

*Ba, nahikua da lur-saill hau guretzako.*

*Eta harek zakan han hola animalixa mordobat, beste pare bat behi (eurentzat esnia), ortua, berduria eurentzako izeteko, eta dana holako palazio edar bat zakan.*

Norbaitten ustia adierazteko ere balixo dau:

*Hauraxe zuan hola pixkat janzen zana, eta haretxen gaztetako erropia jabik horrek, neretzako.*

*Jesus Mari Makazaga*

**CORDON  
VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Karpo eta barneko estalidura  
Zaluen kolokazioa  
Lakadiaz: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orokorra

San Roke, 7 behean  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modaleu  
Tel. 943 740 570

**Bukatua S. Coop.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

OIHANA ETXABE, EMAGINA:

## “BATZUETAN GURE LANA GEHIEGI BALORATZEN DA”

*Oihana Etxaberen eskuek hainbat umeri mundura etortzen lagundu diete eta gustura sentitzen da bere lanarekin. Azken aldian, lehen baino lan handiagoa dute Donostia ospitalean: egunean zortzi jaiotza izatetik hamairu-hamalau izatera pasatu dira. Bere ustez, meritua, ez da emaginena, erditzen diren emakumeena baizik.*

### ► Nolako izan zen ikusi zenuen lehen erditzea?

Espezialitatea Bartzelonan ikasi nuen eta emagin batekin tokatu zitzaidan. Esan zidan garbitzeko. “Biok egingo dugu”, esan zidan. Eta berak lan egin zuen, baina nire eskuek hartuta. Ez zait sekula ahaztuko. Oso polita izan zen.

### ► Zein da emaginaren papera?

Haurdunaldi bitartean kontrolatzea eta haurdunaldi hori normaltasunaren barruan doan ikusi, zerbait gaizki badoa erremedioa jartzeko. Gero erditzean laguntza andreari. Ahal bada berak erditzea. Erditu eta gero, lehenengo berrogei egunetako eboluzioa, amarena eta umearena, jarraitzen ditugu. Beharbada ez dago

personal nahikoa bularra ematen laguntzeko amei. Hori pixkat lagata dago. Pena pixkat daukagu guk.

### ► Erditzeak lehen etxean izaten ziren, orain ospitaleetan. Gauzak hobetu egin dira?

Gauza batzutan bai eta beste askotan ez. Orain momentuan berriro ere eskatzen ari dira umeak izatea etxean eta hori Europako toki guztietan Gobernuak laguntzen du eta hemen momentu honetan ez. Bakarrik dago ospitalean izateko aukera eta etxean edukitzeko era pribatu batean. Teknologia aldetik asko aurreratu da, arazoak detektatzeko eta aurre egiteko. Baina beste alde batetik asko galdu da. Heldu da momentu bat ez duguna sinesten emakumeek erditu behar dugunik, “besteek esango didate zer egin”.

### ► Ospitaleetan, normalean, etzanda erditzen da. Hori ere ez da oso naturala, berez.

Ez da bakarrik hori. %95ek eskatzen dute epidurala Donostia ospitalean. Horrekin gorputza erdi anestesiatuta duzu eta derrigor egon behar duzu etzanda. Gaur



«Ospitalean  
%95ek eskatzen  
dute epidurala»



egun, gainera, zailtasunak daude beste postura batzuetan erditzeko, eta konplikaziorik badago... Baina momentu honetan aldaketak izaten ari dira. Batzuk makurtuta erditu nahi direla esaten dute aurretik baina ez dakite gero zer eskatuko dien gorputzak. Konplikaziorik badago harreta nahi dute, zerbait gertatuz gero ondo irten dadila dena. Gure ospitalean makurtuta erditu nahi denak erditze mahaiaren gainean makurtzeko eskatzen diogu, ez lurrean, gero interbentzionik behar bada, ginekologoak lana ondo egiteko.

▶ **Zuen lana behar den beste balarazten ote da gizarteaz?**

Batzuetan andren aldetik gehiegi iruditzen zait. Bera erditu da eta berak du protagonismoa, ez guk.

▶ **Pasarte berezirik ikusiko zenituen ba...**

Badaude, bai. Gizonak orain erditze-  
ra sartzen dira eta oso polita da. Oso urduri egoten dira eta oso barregarria da. Adibidez behin, erditze batean, konplikazio bat egon zen eta emaginak andrea-  
ren hankak igotzeko eskatu zion gizonari. Honek emagina heldu eta igo egin zuen!

Beste batek zorabiatuta hanka hautsi zuen.

▶ **Zesarea asko egiten dira?**

Gero eta gutxiago. Oso justifikatuta egon behar dute. Profesionalak ondo kontzientziatuta daude orain erditzea bajinala izateko. Ezin denean, zesarea. Gauza asko dira. Gero eta intseminazio gehiago egiten dira. Bikiak eta hirukiak asko izaten dira eta zaila izaten da denak buruz behera izatea. Emakumeek, gainera, gero eta zaharrago izaten dituzte umeak. Berrogeita piku urterekin errazagoa da konplikazioak izatea.

## Afrikan beste elgoibartar batekin batera

Oihana Etxabe Kongoko emakumeen erditzeak ezagutzetik etorri berria dugu. Miren Fernandez elgoibartarrarekin batera, Elizaren proiektu batzurrekin lanean jardun du. Oihanak, batez ere, hango erditzeak ezagutu ditu. Emakumea kontrakzio handiekin dagoenean joaten da ospitalera eta gero paseatzen ematen du denbora, umeak irtetzeko gogoa duenera arte.

Mirenek Afrikan ikusi du estrainekoz erditze bat: hamabost urteko neska baten lehen umea. Oso hunkigarria. Erditze mingenatik ez dute inongo garraxirik egiten eta minari ahal duten moduan eusten diote.

Alde batetik, laku batetik Kansenia herria ura ekartzeko proiektuan lan egin

du Mirenek. Ur bila, orain arte, emakumezkoak joan izan dira oinez, hamabi kilometroa.

Bestetik, Getxo eta Antzuolako Udalek lagundutako eskola proiektuaren azken lanak egiten jardun du. Eskolak 2.000 ikasle hartzen ditu, lehen eta bigarren hezkuntzakoak. Asko urrutitik datozenez, internatuta gelditzen dira. Diru nahikoarik ez dutenez, jakiak etxetik eramaten dituzte eta eskolako ortuan lan egiten dute.

“Misiolari batzuk entrega ikaragarria dute”, azaldu du Mirenek. Batek, esate baterako, hamar ume hartu zituen bere etxean. Gainera, zentru bat jarri zuen martxan gazteei lan egiten erakusteko, Kondiako tomuak lortuta. Orain artezteko makina baten bila dabil.



Oihana Etxabek eta Miren Fernandezek Kongon egin berri duten egonaldiko argazkiak. Pedrusco taldearen kamisetak eraman zituzten.

## [ PROTAGONISTA ]



Josu **Castañares**

Josu Castañaresek Zizurkilen jokatu zen zaldi lasterketa irabazi zuen pasa den domekan Bizkor zaldiarekin. Hamahiru zaldunek hartu zuten parte lasterketan eta horietatik sei emakumezkoak izan ziren. Proba desberdinak burutu behar izan zituzten partaideek eta azkenean Josu Castañares eta Bizkor izan ziren azkarrenak. Denboraldi bikaina egiten ari da elgoibartar gaztea aurtengoan. Bigarren lekuan Orendaineko Iñaki Garmendia sailkatu zen eta hirugarren postua Zizurkilgo Asier Mujika eta Amets zaldiairentzat izan zen.

## [ NOTIZIA ]

### Merkadilloa herriko erdigunera ekartzeko aukera aztertuko dute alderdi politikoek

**E**txebizitza publikoentzako lurra erosteko eta merkadilloa erdigunera ekartzeko mozioak bertan behera laga zituzten, ezustean eta azken momentuan, PSE-EE eta EB-Aralar alderdiek joan zen asteko osoko bilkuran. Unai Zulaika EB-Aralar koalizioiko buruak eta Ovidio Campello PSE-EEko zinegotziak eman zituzten erabaki honen arrazoiak: "Gobernu taldeak gai hauetaz berba egiteko azaldu duen prestutasunak bultzatuta erabaki dugu Udalbatzan aurkeztu genituen bi mozioak atzera botatzea. Gobernu Batzordeetan eztabaidatuko ditugu".

#### Gaiak aztertzeko prest

Udal Gobernu Batzordearen izenean hitz egin zuen Bittori Zabala EAJko zine-



gotziak eta Gobernu Batzordeetan gai guztiak aztertzeko prest daudela azaldu zuen. Gauzak honela, merkadilloa berriz herriko erdigunera ekartzeko aukera eztabaidatzen hasi dira udaletxe alderdi politikoak.

## [ ZENBAKIA ]

# 25

Elgoibarko 25 odol emaile omenduko dituzte Arraten urriaren 21ean. Odola 50 aldiz eman duten gizonek eta 40 aldiz eman duten emakumeek urrezko insignia jasoko dute gainera. Bost lagun izango dira: Jesus Aduriz, Jose Mari Ieiaristi, Luis Mari Riaño, Jesus Mari Zabala eta Rosa Mari Coca.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Etxeko txikienak izan ziren protagonistak Ludotekaren jaialdian. Plaza Handia kolorez eta umorez jantzi zen zapatuan. Inauguratu berri den ludoteka kalera ateratzea zen jaialdi honen helburua, ume eta gurasoei ludotekan zer aurkituko duten erakusteko. Jolasak eta tailerrak izan zituzten umeek. Maskarak, kometak, liburuentzako orriak markatzekoak... egin zituzten. Eta hau guztia lagun berri baten konpainian: Ludo txakurra izan zen umeen lagunik onena. Datorren astetik aurrera, ludotekan elkartuko dira denak.

## Perretxiko erakusketa egingo da aurten lehiaketaren ordez



**K**arakate Mikologia Elkarteak urtero antolatzen duen perretxiko lehiaketa ez egitea erabaki du aurten. Horren partez perretxiko erakusketa didaktikoa izango da azaroaren 4an. Aurreko egunean sailkatuko dituzte perretxikoak eta hilaren 4an goizeko 11:00etan irekiko da Kultur Etxea.

### Basoak bizirik

Eusko Jauriaritzak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak gure basoetako eremu mikologikoen gehiegizko ustiaketa onorio kaltegarriak geldiarazteko martxan jarri

duen sentsibilizazio kanpainarekin bat egitea erabaki du Karakate Elkarteak. Azken aldian toki askotako biologoek, liburu eta aldizkari espezializatuek, natur zientzietako elkarteek eta eguneroko prentsak alarma hotsa altxatu dute mendian perretxikoak batzean ibiltzen direnen portaerari buruz. Karakate Elkarteko kideek esan digutenez, "ardura hori ez da herrikoa bakarrik, Europa eta mundu osokoa da". Egoera hori dela-eta, "kontzientzia hartu behar dugu, mendian ezin da egin norberak nahi duena. Naturak bere arauak ditu eta ingurunea hondatzen ari gara".

## IMHKide: ikasle ohien prestakuntza laguntzeko ekimena



Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak IMHKide izeneko ekimen berria jarri du martxan. Proiektu horren helburua IMHko ikasle ohiei euren prestakuntza eta lan garapenean laguntzea da. Horrela, langabezian daudenei eurentzako egokiak diren ikastaroen berri emango diete, %100 diruz lagundutako ikastaroak zein diren azalduko diete, IMHko lan politan sartzeko aukera eskaini eta titulaziorik ez dutenei, titulua eskuratzen lagunduko diete.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Esperientzia eskola plazarik plaza

Esperientzia Eskolan izena emateko epea oraindik zabalik dago eta ekimen horren berri emateko eskolako ikasle ohiak eskualdeko herri guztietako plazetara hurbilduko dira. Elgoibarren urriaren 11n egingo dira, goizeko 10:00etatik 11:30era. Esperientziaren eskola gertutik ezagutu eta bertan parte hartzeko aukera eskainiko dute.

### Garapen pertsonala

Haizea Emakume Taldeak garapen pertsonalari buruzko ikastaroa antolatu du. Eskame Larinaga psikologo eta sexologoa izango da irakaslea. Eskolak asteazkenetan eskainiko dira, urriaren 10ean hasita, arratsaldeko 16:30etik 18:30era. Interesatuak Pitxintxu opari dendan eman dezakete izena.

### Marrazketa artistikoa

Egur Arte Tailerraren eskutik, marrazketa artistiko ikastaroa izango da urriaren 8tik 31ra. Astelehenetik ostegunera emango dira klaseak, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak Egur Arte Tailerrak Plaza Txikian daukan lokalean eman dezake izena.

### Gidatze eraginkorrerako ikastaroa

Mugikortasun astearren barruan, gidatze eraginkorrerako ikastaroa antolatu du Debegeesak. Datorren urriaren 17an eskainiko da ikastaroa Kultur Etxean, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara. Besteak beste, txofertza egokiaren abantailak irakatsiko dituzte: erregai-kontsumoa murriztu, ingurunea zaindu... Ordubeteko praktika egingo da ikasle bakoitzarekin eta gidatzeko dituen ohiturak aztertuko dira. Interesatuak 943-820110 telefonoan eman dezakete izena urriaren 9a baino lehen.

# Inkesta

Ikerketa baten arabera, EAEko umeen %12,5ek loditasun arazoak ditu.

## Zer egiten duzu zure seme-alaben elikadura zaintzeko?

**ANA VASCOPE**

Nagusi zaintzailea

30 urte



“Pediatriak aholkautako elikagaiak ematen nizkien umeetan. Jateko guztia etxean prestatuta, produktu naturalekin eginkoa. Fruta eta barazki asko jaten dute.”

**SAIOA ARGINTXONA**

Administraria

31 urte



“Denetarik ematen diot: barazkiak, arraina, haragia... Potajea gutxiago. Txokolatea izugarri gustatzen zaio eta noizean behin ematen diot, baina ez gehiegi.”

**MONTSE ARREGI**

Itzultzailea

41 urte



“Opil industrialak ez ematen saiatzen naiz eta goxokiak astebururako lagatzen ditugu. Etxean barazkiak ematen dizkiet, eurek arroza edo pasta nahiago duten arren.”

**MIREN SAGASTA**

Dendaria

30 urte



“Txikiarekin pediatriak esaten didana. Bestea oso argala da, ez da gozozalea. Espageti eta arrozarekin biziko litzateke. Barazkiak astean behin ematen dizkiot, lentejak beste behin.”

## [ BAI ala EZ? ]

Ondo iruditzen al zaizu perretxikoak biltzeagatik dirua kobratzea?

**BAI %74**

“Bai. Azkenaldian perretxiko gehiegi biltzen zituen jendeak. Sekula ez dut ohitura hori ulertu, mendi guztiak hondatzen dituzte. Kontrolatu egin behar da.”

**EZ %26**

“Ez. Perretxikozale amorratua naiz eta sekulako astakeria da dirua kobratzea. Perretxikoak biltzeagatik ez da mendia hondatzen. Hobe al da bertan usteltzen lagatzea?”

Datorren asterako... **Kilometroak 2007 izango da domekan Bergaran.**

**Ikastolen aldeko jaialdiak beharrezkoak al dira euskara indartzeko?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozeilai.com](http://www.talasozeilai.com)

## JAIOTAKOAK



**Nagore  
Gonzalez Tejero**  
[ Irailak 4 ]  
Endika eta Mirari



**Oihana Cantu  
Gilló**  
[ Irailak 6 ]  
Mateo eta Ane



**Ekain Araolaza  
Larrañaga**  
[ Irailak 7 ]  
Oier eta Ainhoa



**Julen Iranzo  
Gonzalez**  
[ Irailak 9 ]  
Antton eta Susana



**Beñat Zearsolo  
Goronaeta**  
[ Irailak 13 ]  
Xabier eta Ainhoa



**Telmo Ibabe  
Sagasta**  
[ Abuztuak 23 ]  
Aitor eta Amaia



**Sarah Yanire  
Arrizabalaga**  
[ Abuztuak 27 ]



**Unai Vallejo  
Barriada**  
[ Irailak 17 ]  
Jose Manuel eta  
Virginia

**Haizea Gutierrez  
Villacorta**  
[ Irailak 20 ]  
Tomas eta Maria  
Luisa

**Mikel Goenaga  
Retolaza**  
[ Irailak 15 ]  
Aitor eta Miren  
Amaia

**Darwin-Xabier  
Fonseca Castejon**  
[ Irailak 25 ]  
Darwin eta Eileen

**Eider Caro  
Epelde**  
[ Irailak 28 ]  
Eugenio eta  
Amaia

## HILDAKOAK

Teresa Agirrebeña • [ 86 urte ] • Irailak 13  
Pedro Vallejo • [ 83 urte ] • Irailak 24

## EZKONTZAK

Jon Luis Jimenez eta Maria Perez [ Irailak 8 ]  
Roberto Mejuto eta Monica Garcia [ Irailak 15 ]  
Josu Astorkia eta Agurtzane Ansola [ Irailak 15 ]  
Oscar Diez eta Maria Zambrano [ Irailak 22 ]  
Ales Ansoate eta Miren Gorrotxategi [ Irailak 29 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberraren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidalie-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

# ETXEBERRIA

**Hileta zerbitzua**  
OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01

## SAN JOSE IKASTOLA

# MENDAROKO IKASTOLA TXIKI GELDITU DA

*Mendaro handitzen ari dela begi bistakoa da. Industriagune berriek enpresak ekarri dituzte herrira eta etxebizitza berriek bizilagun gehiago ekarri dute. Elgoibar eta Eibartik etorritako jende gazte asko bizi da gaur egun Mendaron eta, poliki-poliki, familiak hazten doaz. Duela urte batzuk herrira etorri ziren gazteek umeak eduki dituzte eta ikastolara joateko ordua iritsi zaie. Mendaroko San Jose Ikastola mugan dago, txiki gelditu da. Herria handitu ahala, azpiegiturak ere handitu beharrean daude. Jesus Urbieta zuzendaria, Igone Alberdi ikasketa burua eta Tere Elordi idazkaria izan ditugu gurekin eta eurek azaldu dizkigute Ikastolaren beharrak.*

**M**endaroko biztanle kopurua asko handitu da azken urteotan. 2004ko datuen arabera, 1.634 bizilagun ditu Mendarok. 0 eta 9 urte artekoak 160 dira eta, aldiz, 80tik 99ra bitartekoak 76. Datu hauek kontuan izanik, esan daiteke Mendaro handitzen ari dela, eta horrekin batera handitu behar dira herriko azpiegiturak. San Jose Ikastolak hamabi urte ditu. Lehen Mendaroko ikasleak banatuta zeuden, batzuk ikastolan eta besteak Monjen eskolan.

Gero batu egin ziren biak eta duela hamabi urte eraikin hori egin zen. Hasieran pribatua zen eta 1990. urte inguruan eskola publikoaren sarean sartu zen San Jose ikastola.

Ikasle kopurua urtetik urtera goraka doa. Aurten guztira 185 ikasle dituzte eta zenbait gela mugan daude, hau da, ikasle bat gehiago sartzen bada, bi gelatan banatu behar dituzte umeak. Bi urtekoen gelan, adibidez, hamazortzi da muga, beraz, bi gelatan daude ikasleak. Duela lau urte inguru konturatu

ziren. Ikastolak handitzeko beharra zuela eta behin behineko obra batzuk egin zituzten, baina berrikuntzak zatika egitea ez dela egokia konturatu ziren. Datu guztiak bildu eta epe ertainerako planteamendu bat egin zuten. Mendaroko Udalarekin harremanetan jarri eta euren babesarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera jo zuten. Ikastetxea bertatik bertara ikertzera etorri ziren Jaurlaritzako arduradunak eta, dagoeneko, Ikastola handitzeko proiektua onartuta dago.

2007-08 MATRIKULAZIOAK		
Adina	Kopurua	Gelak
HH2 urte	20	2
HH3 urte	22	1
HH4 urte	24	2
HH5 urte	20	1
LH1	25	1
LH2	20	1
LH3	13	1
LH4	13	1
LH5	13	1
LH6	15	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>185</b>	<b>12</b>

*Taula honetan ikusten dugun bezala, bi eta lau urteko haurrak bi gelatan banatuta daude, izan ere, denak gela batean biltzeko muga gainditu egiten dute-eta.*





## Ikastolaren premiak

Gela berriak egiteko beharra da premiazkoena. Eraikuntzari solairu berri bat egingo diote alde batean eta bost gela berri lortuko dituzte. Jangela ere txiki gelditu da, 80 ume inguru gelditzen dira egunero bertan bazkaltzen eta oso justu kabitzen dira. Soinketa gelak ere handitzeko beharra dauka. Bi gela horiek solairu berean daude eta horien ondoan erabiltzen ez den soto handi bat dago. Soto hori aprobetxatzea da Ikastolak egin

duen proposamena. 600.000 euroko aurrekontua dauka proiektu berri honek eta, dena ondo badoa, ikasturte amaieran hasiko dira obrak.

Horrekin batera, haurtzaindegiaren beharra ikusten dute, baina momentuz ez daukate zerbitzu hori eskaintzeko aukerarik. Dena dela, aurten zaintza zerbitzua jarri dute martxan. Bi, hiru, lau eta bost urteko umeak goizeko 7:30etik 9:00ak arte eta arratsaldez 16:30etik 18:00ak arte zaintzen dituzte. "Lanean ari

diren gurasoentzat ezinbestekoa da", esan digu Jesus Urbietak.

## Ikasle kopurua

Etengabe handitu da ikasle kopurua 2004. urtetik hona. Mendaroko Ikastolatik datozen urteetarako aurreikuspena egin dute. Ikusten den bezala, ikasturte bakoitzean sartzen diren ikasleak gehiago dira ateratzen direnak baino. Ondorengo taulan ikus daitezke datuak.

### IKASTOLAREN DATUAK:

Irakasleak	25
Ikasleak	185
Ingeles gela	1
Musika gela	1
Soinketa gela	1
Liburutegia	1
Jangela	1

Ikasturtea	Ikasleak	Irten	Sartu	Diferentzia
2004-05	141	5	25	20
2005-06	161	10	27	17
2006-07	178	12	24	12
2007-08	190	13	22	9
2008-09	199	16	22	6
2009-10	205	10	22	12
2010-11	217	11	22	11

**EMILIA NOGALES** MARGOLARIA

## «Pinturak bakea eta lasaitasuna ematen dizkit»



*Astelehenean ireki zuen Emilia Nogalesek arte galeria Trenbide kalean eta aurrerantzean bertan izango dira bere lanak ikusgai. Ekinaren ekinez, izugarizko bilakaera izan du moda diseinatzaile izandako emakume honen artelanak, gehienbat bere kabuz ikasi badu ere.*

▶ **Galeria, estudioa, denda... zer da ireki berri duzun espazio hau?**

Arte galeria txikia dela esango nuke. Ez da zortzi orduz irekia egongo den denda. lanean eta margotzen egongo naizen orduetan irekita egongo da. Gero, telefono zenbakia kanpoan jarria daukat.

▶ **Zer asmo duzu?**

Momentuz hemen nago, Elgoibarren. Donostia edo Kataluniako lagun batzuek badauzkate nire koadroak, baina kanpoan ez dut erakusketarik egin, Elgoibarren bakarrik, kultur etxean pare bat aldiz. Oso lasai daramat. Ni, momentuz, astiro noa. Ez dut presarik. Ez dakit, gero denborarekin beste helmuga batzuk etorriko dira.

▶ **Zer ikus daiteke bertan?**

Nire lanak, momentuz. Ez dut uste beste batzuen lanak jarriko ditudanik. Momentuz nik margotzen dudana erakusten dut hemen.

▶ **Nola ikusten duzu zure bilakaera?**

Pozik nago. Linea berean jarraitu arren, aldatetak gertatzen dira nire lanetan. Lehen gehiago ikusten ziren gauzak margotzen nituen. Orain, berriz, abstraktoagoa da dena, baina ez erabat. Momentuan nahi du-

danaren edo aldar-tearen arabera aldatuz joaten naiz.

▶ **Testurekin jolastea gustuko duzu.**

Bai. Nahi ditudan materialak sartzen ditut, nahi ditudan bolumenak sortzeko. Aldar-tearen arabera, argiagoak edo ilunagoak ateratzen zaizkit margoak...

**«Astiro noa. Denborarekin beste helmuga batzuk etorriko dira»**

▶ **Inspirazio iturririk?**

Nahi dudana egiten dut. Beharbada, ihartutako lore bat ikusi eta "zer polita" esaten dut eta nire paisaietan integratzen dut. Hondoak gero ez du zerikusirik. Dena irreal da. "Zer da hau?", galdetzen dida-

te askok. Nire koadroetan ez dago ezer errealik, ez dago paisaia errealik ez ezer. Paisaia errealean bat egotekotan, ipuineta-koa da, ametsetakoa.

▶ **Gehienbat zure kabuz ikasi dituzu pintura munduko sekretuak, ezta?**

Egia esan, ni ez naiz erakusketak ikustera joan. Hamabost eguneko oleo ikastaroa egin nuen. Gustatu egin zitzaidan eta beste hilabete batzuk eman nituen ikasten eskua egin arte. Gero etxera joan nintzen korrika, nahi nuena ikasteko.

▶ **Izaten al da saldu nahi ez duzun koadrorik?**

Gertatzen da, batzuk saltzeak pena ematen du. Batzuegatik zerbait berezia sentitzen duzu... Batzuk etxean dauzkagu gustuko dauzkagulako.

▶ **Zer ematen dizu pinturak?**

Bakea eta lasaitasuna. Ni oso urduria naiz eta honek asko lasaitzen nau. Sentimendu asko adieraz daitezke horren bidez. Egun batzuetan terapia modukoa da, urduri eta tentso zaudenean. Egun batzuetan ezin banaiz pintatzen etorri, denbora guztian daukat buruan zer pintatu behar dudana.



## “LA TABERNERA DEL PUERTO”

### Gaur gauean izango den zarzuelak ikusmina sortu du

**H**erriko Antzokian “La taberna del puerto” zarzuela gaur ikusteko sarreraren salmenta oso martxa onean doa eta dagoeneko jende ugari hurbildu da Kultura Sailera. Eguaztenerako sarreraren %75 salduta zeuden.

luz, “El Caserio” zarzuelarekin sekulako arrakasta izan zuen Bilboko Masa Coral del Ensanche taldeak, Antzokian bertan. Aretoa bete egin zuten eta gaurko, martxa honetan jarraituz gero, badirudi ez dela eserleku hutsik geldituko. Ikuskizuna 22:15ean hasiko da.

“La taberna del puerto” zarzuela klasiko ezaguna da. Pablo Sorozabalaren

musika darama eta libretoa Federico Romerok eta Guillermo Fernandez-Shawk idatzi zuten.

Cantabredako portuko Marola tabernariaren eta Leandro arrantzalearen arteko maitasun istorioa kontatzen da ikuskizunean. Tartean, hainbat iruzur agertzen dira.

Masa Coral del Ensanche taldea 1903an sortu zen Bilbon eta 1943az geroztik zarzuelak eskaintzen dihardu. Guztira 28 lan taularatu ditu eta sari mordoa jaso izan dituzte, batzuk garrantzi handikoak. Bilboko, Euskal Herriko zein Nazioarteko antzokietan parte hartu du.



### Eguaztenean hasi ziren Errosario kaleko jaiak egitarau zabala eskaintzen dute



Eguaztenez Errosario kaleko jaiak ospatzeko ekitaldi ugari burutzen ari dira. Asteburuan izango diren ekitaldien artean, lasturko Juanjo Agirregabiria txingalariaren erakustaldia azpimarra daiteke.

Eguaztenez txokolatada eta jolasen ostean, atzoko egunerako sokamuturra, Mautixaren kalejira eta *lunch-a* zeuden iragarrita.

Gaur, berriz, Kiribil barraskiloa 17:30etan agertuko da Errosario kalean. Baina denentzako ospakizunak ere izango dira: 18:00etan, pilota partidak, 19:00etan, batukada eta 21:15etan he-

rri afaria, Kultur Etxeko sotoan, Gelatxoren musikak alaituta.

Bihar zeresana emango du Juanjo Agirregabiria txingalariaren saiokak. Izan ere, hainbat modalitatetan izan da Euskal Herriko txapelduna. Horren ostean, 25 kiloko txingak izango dira, parte hartu nahi duen edonorentzat. Aranburu eta Shoroet munduko trinkete txapeldun izandakoek Lagunakeko bikote baten aurka airtuko dira.

Jaiok domekan amaituko dira, Errosario Egunean, ospakizun erlijiosoeekin: meza eta errosarioarekin.

### Glu-gluk umeentzako “Handitan” antzezlanaren estreinatuko du domekan

“Handitan zer izan nahi duzu?”, galderari erantzungo dio domekan Herriko Antzokian Glu-glu antzerki taldeak 16:30etatik aurrera estreinatuko eskainiko duen “Handitan” lanak.

Bernardo, Katixa eta Maitane pailazoen galdera horri erantzun zoroak aurkitzen dizkiete. Hiru lagunak ez dira pailazo klasikoak, batez ere balore eta portaerari dagokienez.

Aizpea Goenagak sortu eta zuzendutako lan honetan Libe Aranburuk, Larraitz Garcia eta Urtza Zuazok parte hartzen dute.

“Handitan” ikusteko sarrerak leihaitan bertan salduko dituzte.



## LAGUNARTEKO X. JENDETXA TRIATLOIA

### Hamar urte, hamaika istorio eta ohitura polit bat



**D**okumentu bitxia bidali digu Elgoibarko koadrila batek. Apustu, jolas edo erronka moduan egin zuten estreinako lagunarteko triatloia Jendetxa koadrilakoek, orain hamarkada bat. Guztiak kirolzale amarratuak dira, eta kirola adiskidetasunarekin uztartuz, triatloia egiten dute urtean behin, iraileko azken asteburuan. Hasi zirenean uste ez bazuten ere, 10. edizioa egitera iritsi dira aurten. Urteik urtera antolakuntza eta kirolarien prestaketa nabarmen hobetu direla azaldu digute. "Lehen urteetan, ozta-ozta egiten zuten igerian batzuk edo gorputza lehortu eta bainujantzia aldatzen denbora galtzen genuen ia denok". Egun apenas dago horrelako "profesionaltasun faltarik", aitortu digute irribarrez. Proba jokatu aurreko eztabaidak eta "pike sanoak" pil-pilean egoten dira, "giroan sartu eta saltsa pixka bat sortzeko". Hamabost lagunek hartu dute parte aurten, inoiz baino gehiagok, eta neska talde bat errelebotan aritu da. Igerian, Mutrikuko portuko igerileku naturalean egiten dute. Handik, bizikleta hartu eta Elgoibarreraino; eta, amaitzeko korrika hiru kilometro Lerun industriagunean. Dena ez da kirola, ordea: euskaldunon ohiturari eutsiz, bazkari eta parandarekin agurtu zuten eguna. Proba Ibon Gabilondok irabazi zuen, beti bezala.



**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




# TERTULIAK

2007 - 2008

Euskaldunak euskaldun berriekin tertulian.  
Dakitena praktikatzeko eta ez dakitena ikasteko.



Eman  
izena!

Eman  
izena!

Izena emateko eta informazioa:



ELGOIBAKO IZARRA  
EUSKAL EGARTEA



Tel. 943 74 13 32



EUSKALTEGIAK

Tel. 943 74 27 31



UDALAREN EUSKARA BATZORDEA

Izena emateko azken eguna: urriak 11. DOAN!

## JUANJO AGIRREGABIRIA TXINGA ERAMAILEA

# «Txinga mundua hilda egon da baina berriro hasi da berpizten»



*Jaiotzez Lasturkoa izanik, Deban bizi da Juanjo Agirregabiria txinga eramailea. Errosario kaleko jaietan txinga erakustaldia egingo du 50 kiloko txingekin. Bestalde, 25 kiloko txingak ekarriko ditu, jendeak probatzeko. Bihar, goizeko 11:30ak aldera hasiko da probaldia Errosario kalean.*

### ► Nola sartu zinen txinga munduan?

20 urte izango nituen. Itziarko jaietara joan ginen eta txingak probatzeko aukera zegoen. Azkena geratu nintzen orduan, baina gustatu egin zitzaidan. Hurrengo urterako hobeto prestatu nintzen.

### ► Noiz irabazi zenuen lehenengo titulu?

Nire lehenengo helburua Itziarko Osa txinga eramaileari irabaztea zen. Itziarko txapelduna zen bera. Hori lortu nuenean txapelketetan parte hartzen hasi nintzen. 25 urterekin hasi nintzen erakustaldi eta txapelketetan. 25 urte pasatu dira orduetik!

### ► Zenbat kiloko txingekin ibiltzen zara?

Entrenamenduak 25 kiloko txingekin egiten ditut. Kilometro asko egin behar izaten dira eta 50 kilokoa gutxitan hartzen dugu, gorputzak paliza handia hartzen du-eta. Ehun kilokoarekin ere eginda daukat erakustaldia eta duela hiru urte 113 kiloko txingekin atera nintzen Deban. Bertako gizon batek dauka 113 kilokoekin markarik onena eta hari irabaztea zen nire nahia, baina ezin izan nuen, metro gutxi batzuk falta izan zitzaizkidan. 37 metro egin nituen eta haren marka 42 metrokoa zen. Ez dut berriz horrelakorik egingo!

### ► 50 kiloko txingak atzamar bakarrekin eramaten dituzu. Zein da sekretua?

Txinga ondo heltzea da sekretua. Erdiko atzamararekin egiten dut erakustal-

dia. Bizkaia aldean ikusi nuen gizon bat eta probatu egin nuen. Hiru plaza inguru egiten ditut atzamararekin. Gasteizko tipo batek atzamar txikiarekin egiten zuen!

### ► Zertan datza txinga erakustaldia?

Txingak hartu eta lurra ikutu arte bueltak ematean datza. 31 plazatan dago nire markarik onena, plaza bakoitzak 28 metro dauka. 31 plaza egin eta bigarren geratu nintzen! Nire aurkariak bazekien nire marka zenbatekoa zen eta bentajarekin jokatu zuen.

### ► Bost aldiz Euskal Herriko txapeldun...

Bai eta beste mordo baten txapeldunorde. laz kendu egin zidaten titulua Bilbon. Nire markarik onena egin nuen baina Roman Hierro arabarrak irabazi zuen. Biok ibiltzen gara beti borrokan. Aurten beriz jantzi dut txapela. Suertea izan nuen, azkena atera nintzen eta aurrekoek plaza gutxi egin zituzten. Roman Hierrok ez du parte hartu. Etxeko armairua garakurrez beteta daukat.

### ► Jende asko ibiltzen al da txingetan?

Txinga mundua hilda egon da, baina berriro hasi da berpizten. Garai batean Bizkaian jende mordo ibiltzen zen; handik sortu zen proba hau. Niri herri kirolak izugarri gustatzen zaizkit, gizon probetan ere ibilitakoa naiz. Gazteak sartu dira orain herri kirolen munduan eta indarra hartzen ari da. Hamabost modalitate diferente daude herri kiroletan. Aizkora eta harijasotzea dira indartsuenak.

«Etxeko armairua garakurrez beteta daukat»

## SAN MIGELERA I. KORRIKA IGOERA

# San Migelerako Korrika Igoeran 46 lagunek hartu zuten parte

**S**an Migelerako Korrika Igoera izan da aurtengo berrikuntza Aiaasia auzoko jaien barruan eta arrakasta handia izan du. 46 lagunek hartu zuten parte guztira, horietik bi neskak. Unai Bengoa itziartarra izan zen irabazlea 21'22" denborarekin. J. Antonio Soto mendararra sartu zen bigarren lekuan hamar segundu beranduago eta hirugarren lekuan Jon Revert sailkatu zen 22'02" denborarekin. Nesketan Soralezuko Ane Mendia izan zen azkarrena 27'52" denborarekin eta bigarrena Pilar Lama elgoibartarra 31'52" denborarekin.

### Artzai txakur txapelketa

Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur txapelketa jokatu zen pasa den zapatuan San Migelen eta bigarren urtez jarraian Carlos Pinedo arabarra nagusitu zen, Xuster txakurarekin. Domekan, bestalde, idi demak izan ziren eta saria Erandio aldera joan zen. Jose Agustin Bilbaoren idiak izan ziren garaile 49 plaza, bi zinta, 4 metro eta 10 zentimetrorekin. Karmelo Birkandi berrituarra bigarren eta hirugarren Elgoibarko Soarte.



## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 0 - Amorebieta 0  
Mutriku 1 - Elgoibar 0 (Reg.)  
Elgoibar 7 - Ordezia 0 (Nesk.)  
Aloñamendi 2 - Elgoibar 2 (Jub.)  
Elgoibar 1 - Antiguoko 0 (Kad.)  
Elgoibar 17 - Mutriku 0 (Inf.)

### ARETO FUTBOLA

Kukuiaua Etxebarri 0 - Kenci 2 (Euskal Liga)

### PILOTA GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Gabilondo-Plazaola 21 - Umieta 22 (3º kad)  
Amibillaga-Lizarralde 16 - Zazpi Iturri 22 (Jub 1º)  
Ilunpe 22 - Atxotegi-Loiola 21 (Nag.)  
Lazarobaster 16 - Añorga 22 (Nag.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

#### Zapata, 6

15:00 Elgoibar - Arizmendi (Nesk.)  
17:00 Elgoibar - Martutene (1. erreg.)  
19:00 Elgoibar - Zumaiako (Jub.)

#### Domeka, 7

10:00 Elgoibar - Eibar (Aleb.)

### ESKUBALOA Kiroldegian

#### Zapata, 6

17:00 IMH Elgoibar - Zarautz B (Kad. nesk.)  
18:30 Cometel - Zarautz B (Jub. nesk.)

### PILOTA Ikastolan

#### Barixakua, 5

22:00 Atxotegi-Loiola - Bergara (Nag.)

### ARETO FUTBOLA Kiroldegian

#### Zapata, 6

15:45 Kenci - Goierni (Euskal Liga)

## Hamar talderekin hasi du denboraldia Sanlo Eskubaloi Taldeak



laz baino talde bat gehiago dauka aurten Sanlo Eskubaloi taldeak. Arazo batzuen ondorioz, ezin izan dute mutilen senior taldea osatu, baina infantil mailan talde berriak sortu dira eta bost talde daude guztira maila honetan. Kadete mailan zailtasunak izan dituzte taldea osatzeko, baina azkenean lortu dute. Guztira hamar talde daude aurten.

## Kiroldegiko taberna

Kirol Patronatuak Olaizaga Kiroldegiko taberna kudeatzeko arduradunak aukeratuko ditu lehiaketa bidez. Beterriak kiroldegiko harreraren jaso daitezke. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 15ean amaituko da. Arduradunei eskatuko zaien gutxieneko errenta 470 eurokoa da.

## Xake ikastaroa

Elgoibar Xake Taldearen eskutik, martxan dira xake ikastaroak. Pista Beltzeko lokalean eskaintzen dira ostiralero, 18:15etik 20:00etara. Klaseak dohaiarik dira, eta euskaraz nahiz gaztelaraz jasotzeko aukera dago. Interesatuak 630 73 11 32 telefonora deitu.

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- ▶ Buardilla salgai Altzolan.  
☎ **695776373**
- ▶ Etxea salgai Bernardo Ezenarro 9an, 80m<sup>2</sup>. Igogailua, gas naturala leihoaraino, ganbara 15m<sup>2</sup>koa, berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria. ☎ **665735660**
- ▶ Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria.  
☎ **619409273**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukalde-jangela eta egongela. Komuna eta berogailua. 3. solairua. ☎ **688650060**
- ▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela eta komuna. Eguzkitsua. Berritua. ☎ **680707639**
- ▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igo-gailua berrituak. ☎ **628115677**

### ALOKAIRUA

- ▶ Pisu hartuko nuke alokairuan.  
☎ **646832693**
- ▶ Pisu edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **659093967**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ **671405061/943530243**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ **699637269**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ **943531288**
- ▶ Etxea alokatu edo norbaitekin konpartituko nuke Elgoibarren.  
☎ **686907827 (Argitze)**
- ▶ Logela alokatzen da.  
☎ **943741881**
- ▶ 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko.  
☎ **658700164**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- ▶ Marradun garajea alokatzen da herri erdian, Santa Ana 2an.  
☎ **943743427**
- ▶ 200m<sup>2</sup> eta 400m<sup>2</sup>ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairua.  
☎ **619409273**
- ▶ Garajea alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu.  
☎ **669022573**
- ▶ Garaje marraduna salgai Pista Beltzean.  
☎ **943741924/619677797**

## [ BESTELAKOAK ]

- ▶ Dalmata arrazako txakurkumeak salgai. Pedigriarekin.  
☎ **636135319**
- ▶ Borda egokitu bat erosiko nuke.  
☎ **680178636**

## [ AUTOAK ]

- ▶ Daelin 125cc motorra salgai. Merke. ☎ **696409904**
- ▶ Renault Megane 1.600 autoa salgai. 42.000km, ia 3 urte. Egoera oso onean. ☎ **606675314**
- ▶ Karabana salgai Mutrikun.  
☎ **629415984**
- ▶ Audi A4 2.5TDI 150 zaldi. 1998koa. Automatikoa. 140.000km.  
☎ **630975501**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean edo etxean. ☎ **693010168**
- 40 urteko gizon euskalduna lanerako prest. Gida baimenarekin.  
☎ **661225149**
- Mutila ostalaritzan edo nagusiak zainduz lan egiteko prest.  
☎ **639945935/943531608**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **678117022**
- Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest.  
☎ **658164787**
- Emakumea nagusiak zaindu, garbiketarako eta plantxa egiteko prest. ☎ **639505373**
- Neska garbiketarako edo kamarera lanerako prest.  
☎ **627831477**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **638333816**
- Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest.  
☎ **638333816**
- Neska lanerako prest.  
☎ **646832693**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **699813826 (Beti)**
- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest.  
☎ **671158943 (Sofia)**

- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest.  
☎ **666111032 (Cati)**
- Ingeles klaseak ematen dira. Maila guztiak. ☎ **606733850**
- Enpresa eta merkataritza-ingeles klaseak eskaintzen dira.  
☎ **696964069**
- Mutila pinturan, altzariak bami-zatzen edo beste edozein lanerako prest. ☎ **638338816**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **699609190**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. Arratsaldez.  
☎ **678939382**
- Neska lanerako prest.  
☎ **696204053**
- Neska lanerako prest.  
☎ **669064252**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **639240038**
- LH eta DBH1. eta 2. mailako klase partikularrak emango nituzke urtik aurrera. ☎ **943742855**
- Neska lanerako prest.  
☎ **660529146**
- Gizon elgoibartarra edozein lanerako prest: baserrian, nagusiak zainduz...  
☎ **661225149/943531745**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **626767586**
- Gizona elektrizista lanerako prest. ☎ **606612834**

- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. Orduka, esperientziarekin.  
☎ **650813847**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **652446228**
- Gizona lanerako prest.  
☎ **638338816/943531608**
- Emakumea garbiketarako prest.  
☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.  
☎ **648603029**

### ESKAINNTZA

- Parafamazan lan egiteko dietista b ehar da. ☎ **686045321**
- Kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ **635751642**
- Neska behar da aste barruan, 12:30etik 15:30era tabeman lan egiteko. Euskalduna, 28 urtetik gorakoa. ☎ **943741416**
- Hortz klinikarako harreran lan egiteko neska behar da. Euskaraz jakitea ezinbestekoa.  
☎ **647315677 (arratsaldez)**
- Sukaldari laguntzailea behar da.  
☎ **943121262**
- Jateixerako kamareroa behar da.  
☎ **943121262**
- Elgoibarko enpresak proiektista eta delineaiztaile bat behar ditu. Curriculum-a bidali 159 posta kutxatilara. ☎ **943741662**

- Banatzailea behar da, furgoneta enpresaren kont. ☎ **627597222**
- Londresen bizi den familia euskaldunak au-pair bat behar du umeak zaintzeko.  
☎ **667710753 (Nora)**
- Kamareroa behar da.  
☎ **627597222**
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da.  
☎ **659399824**
- Bitxiak, barruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak, ez da esperientziarik behar. ☎ **607824892**
- Tabernarako kamareroa behar da. ☎ **943742595**
- Ileapaindegirako neska edo mutila behar da. Esperientzia.  
☎ **637302318**

## ABISUAK

- Katu pertsiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu.  
☎ **647067666 (Sorkunde)**
- Eguzkitako betaurreko graduatuak aurkitu ditut. ☎ **943742855**
- Egunero Azkoitiik Elgoibarrera autoz etortzeko prest dagoen norbait behar dut.  
☎ **699820820**
- Ihauterietako asteartean, otsailaren 20an, King-Kong autobus geltoki aurrean izan zen istripuko lekukoak behar ditut. Auto batek emakume bat harapatu zuen.  
☎ **670364908/650854917**

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak, **Markel**, hilaren 3an 5 urte egin zenituelako. Aitaxo, amatxo eta Haizearen partez.



▶ Zorionak, **Garazi**, urriaren 8an 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta bereziki, Iruneren partez.



▶ Zorionak, **Malen**, zure 6. urtebetetzean. Familiakoan eta bereziki, Nahiaren partez.



▶ Zorionak, **Josebal** Jadanik urtetxo bat! Oso ondo pasa zure egunean eta jarraitu horren alai.



▶ Zenbat urte egingo ditu gure gizontxoak? Baaaaa! Ondo ibili polit hori eta laga tarta zaitxo bat besteontzako. Paaaaa!



▶ Zorionak, **Jose Manuel**, zure 12. urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak, **Ekaitz**, bihar zure eguna delako. Ondo pasa 9 urte estreinatu berriekin. Etxekoan partez.



▶ Zorionak, **Jone Alberdil** Muxu handi bat familiako guztien partez.



▶ Zorionak, **Danel**, gaur 5 urte egin dituzulako. Lagunen eta familiakoan partez.



▶ Zorionak gure etxeko printzesatxoari. Muxu handi bat eta ondo pasa zure egunean.



▶ Zorionak etxekoan eta bereziki, Gaizka eta Mirenen partez.



▶ Zorionak, **Agurtzane**, etxeko guztien partez.



▶ Zorionak, **bruji**, eta muxu eder bat etxeko denon partez.



▶ Zorionak **Aida** printzesatxoari! 6 urte! Neska handia egina zaude. Tamara, guraso eta aiton-amonen partez muxu bat.



▶ Zorionak, **Mertxel** Ondo pasa! Tamara eta Aidaren partez.



▶ Zorionak, izeko **Petri** Urte bat gehiago eduki arren, beti bezain guapa zaude. Tamara eta Aidaren partez.



▶ Zorionak, **Enara**, irailaren 29an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



▶ Zorionak, **Aitor eta Amaia**, zuen urtebetetze egunean. Etxekoan eta bereziki, Nerearen partez.



▶ Zorionak, **Ander eta Jon!** Muxu asko ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **hirukote!** Anderi bereziki, muxu handi bat bere urtebetetzean. Dinamoren partez.

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



7 igandea DOÑA MERCEDES



## [ FARMAZIAK ]

- 5 Guardia 24 ORDUZ
- 6 Fernandez
- 6 Etxeberria (Santa Ana)
- 7 Etxeberria (Santa Ana)
- 8 Zabaleta
- 9 Etxeberria (Erosario)
- 10 Ibañez
- 11 Bidasolo
- 12 Ibañez

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBANEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 6:55, 7:15, 7:45, 8:15, 8:35, 9:05, 10:45, 13:45, 14:05, 14:45, 15:45, 18:45, 20:45

**Larunbatak:** 7:05, 7:15, 9:05, 10:45, 11:05, 13:45, 15:05, 18:40, 19:05

**Igandek eta jaiegunak:** 9:05, 9:45, 13:05, 13:40, 17:05, 18:40, 20:40, 21:05

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:00, 9:30, 12:30, 13:00, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:45, 21:00

**Larunbatak:** 8:00, 12:00, 12:30, 15:00, 16:00, 17:30, 19:30, 20:45, 21:00

**Igandek eta jaiegunak:** 8:00, 12:00, 12:30, 16:00, 19:30, 20:00, 20:45.

**PESA: 902 10 12 10**

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

**EUSKOTREN: 902 543 210**

## [ 5 BARIXAKUA ]

### 17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 eta 6 urte arteko haurrentzat Plaza Handian Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

### 22:15 "LA TABERNA DEL PUERTO" ZARZUELA

Taldea: Masa Coral del Ensanche de Bilbao Herriko Antzokian



**euskaltegiak 25 urte**  
"Bulegoko lana hobetzeko eman nuen izena AEKn. Nire oroitzenak oso onak dira, giro aparta izan genuen."



Elgoibarko **aek** euskaltegia  
Plaza Txikia, 3  
Tel.: 943 74 13 32  
elgoibar@aek.org




**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



## [ 6 ZAPATUA ]

### 11:00 UDAZKEN FESTA

Plaza Handian  
HH eta LH 1 eta 2koentzat  
Antolatzailea: Atxutxi eta Gaz-T

## [ 7 DOMEKA ]

### 16:30 "HANDITAN"

#### ANTZEZLANAREN ESTREINALDIA

Taldea: Glu-Glu Produzioak  
3-8 urte artekoentzat  
Herriko Antzokian

## [ 12 BARIXAKUA ]

### 12:00 PILAR EGUNA

Pilar Ikastetxean  
Lehenik meza ikastetxeko gimnasioan.  
Ondoren, 13:00etan, luntxa, guraso-batzordeak antolatuta

### 12:00 SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA

Antolatzailea: Lagunak

## ERROSARIO KALEKO JAIAK

### Urriak 5, barixakua

18:00 Pilota partidak  
Lagunak Pilota Eskolak antolatuta  
19:00 Batukada erakustaldia  
21:15, Errosario kaleko bizilagunen herri afaria  
Kultur Etxeko sotoan

### Urriak 6, zapatua

11:00 Pilota partidak. Kadete mailako txapelketaren finala  
Ondoren, Juan Jose Agirregabiria txinga eramatailearen erakustaldia  
Jarraian, Pilota partidak Elgoibar eta Iparraldeko pilotarien artean. Plaza Handiko frontoian  
Aranburu-Shoroet  
Lagunak Taldeko pilotariak  
20:00 Aureskua dantzatu eta salbea errezatu Errosarioko Amabirjinen aurrean

### Urriak 7 (Errosarioko Amabirjinen Eguna)

11:00 Meza San Bartolome parrokian Errosario kalean hildakoen alde  
18:00 Errosarioa eta meza Amabinaren aurrean

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



#### «La Jungla 4.0»

6, zapatua: 19:00-22:15

7, domeka: 19:00-22:15

8, astelehena: 21:30

«El ultimatum de Bourne»

12, barixakua: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «Un corazon invencible»

5, barixakua: 19:30-22:15

6, zapatua: 17:00-19:30-22:15

7, domeka: 17:00-19:30-22:15

8, astelehena: 19:30-22:15

9, martitzena: 19:30-22:15

10, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## S I N O P S I A K

### «La jungla 4.0» (Z.K.)

Zuzendaria: Len Wiseman.

Antzezleak: Bruce Willis, Timothy Olyphant.

Oporren hasiera izanagatik, John McClane ez dago festarako. Lucy bere alaba nerabe egoskorarekin haserretu da beste behin eta lanean ere ez du giro. Kontu hauietaz tutik ulertzen ez duen arren, hacker gazte bat atxilotzea agindu diote. Errutinazko atxiloteta bat gehiago izan behar zuena gutxinaka trabatuz joan da, ordea, eta demaseko zurrumbiloi sartuko da oraingoan ere McClane gajoa. Informatika adituek kolokan jarriko dute Amerikako Estatu Batuetako babes sistema guztia.

# Atzera hegira



**1954**. urteko erretratu zahar hau **Pedro Ezkurak** laga digu. Argazkian agertzen diren gehienak "Umore ona" izeneko koadrilakoak dira, baina badaude beste koadrila batzuetako mutilak ere. Urtean behin elkartzen ziren denak eta San Rokera joaten ziren egun pasa. Bertan bazkaldu eta umore onean pasatzen zuten eguna. Herriatik jende asko gerturatzen zen San Rokera mutil koadrila honen jarduna ikustera. Erretratua San Rokeko ermitaren atzeko aldean aterata dago. Ikusten den bezala, gaur egun erabat berrituta dago ingurune hori. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen direnak. Goian, ezkerretik eskumara: **Inazio Zabaleta (†)**, **Bernabe Mujika (†)**, **Hermes Melica (italiarra) (†)**, **Jesus Egaña (†)**, **Sabin Gorostiza (†)**, **Jose Mari Gabilondo (†)**, **Genaro Bilbao (†)**, **Bizente Berasaluze**, **Ramon Maiztegi (†)**.  
Beheko ilaran: **Pedro Gabilondo**, **Agustin Sagasta (†)**, **Julian Azkue (†)**, **Mikel Gorostiza**, **Juanito Gurrutxaga (†)**, **Jose Zabaleta (†)**, **Jose Garagarza (†)**, **eibartarra**, **Gabriel Gabilondo (†)**.



## ESKERTZA

2007ko urriaren 3an hil zen **Vicenta Sanz Artuzar**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## II. URTEURRENA

2005ko urriaren 8an hil zen **Sabín Larreategi Orunaren** oroimenez II. urteurrenako meza izango da, astelehenean, urriaren 8an, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



# To, hiru bateko!

# Giauto

## KONTZESIONARIO OFIZIALAK

### GIAUTO OPEL

ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA  
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA  
Tel. 902 345 123 Salmentak  
Tel. 902 345 125 Tailerra  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

### GIAUTO CHEVROLET

EIBAR · OLABERRIA  
Tel. 902 345 225  
[www.red-chevrolet.com](http://www.red-chevrolet.com)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

### GIAUTO SAAB

BERGARA  
Tel. 943 763 347  
[www.giauto.redsaab.com](http://www.giauto.redsaab.com)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)



# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!**



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Etxekit

Sukaldeak eta balnuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### Ezenarro arotzerxia

Era guztietako arotz lanak  
☎ 653 707 837

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.com  
www.excavacioneslekunberri.com



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibamar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Zaldua

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Elbar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea  
MENDARO  
☎ 943 03 35 35/660 791 723

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94